

Freuden ondorioak: Psikoanalisia eta egungo zientziaren diskurtsoa

MIKEL PLAZAOLA

EHU

(After Freud: Psychoanalysis of contemporary scientific discourse)

Abstract

Starting off from the present situation of the intervention in Mental Health, we discuss the situation of psychoanalysis in two specific fields: the University and official Care in Mental Health. Different issues of this situation are considered with respect to the epistemology of science. With that purpose, we describe the relationship between psychoanalysis and the scientific contribution of three main trends in psychoanalysis represented by Freud, post-Freudians and Lacan.

Keywords: *psychoanalysis, epistemology of science, subject*

1. Sarrera

Psikoanalisiaren sortzaile izan zen Sigmund Freuden heriotzaren 150 urteurrena amaitzear dagoen honetan, bere ekarpenari buruzko aipamen xume bat eta psikoanalisiak gaur egungo egoeran duen kokapenari buruzko zenbait burutapen egitea ez dagoela soberan iruditu zaigu. Psikoanalisia, psikopatologiaren teoria ulerkor bat, horretaz baliaturik egiten den sendabide-modu bat, eta giza psikismoaren ulermenerako ezagutza-sistema bat dela, Freudek berak aldarrikatu zuen. Beraz, gizakiaren bi atal nagusi ukitzen ditu psikoanalisiak: ezagutza-arloa eta sufrimendu psikikoaren eta sendabidearena.

Bestalde, gizartean, bereziki lehen mundukoan, *ezagutza* eta *zaintza* estatuaren esku daude. Bestela esanda, osasuna erakunde ofizialen esku dago

(nahiz eta ez bakarrik), eta berdin ezagutza ere: irakaskuntza-sistemaren esku, kasurako, unibertsitatearen esku.

Baina, psikoanaliaren kasuan ofizialtasunetik kanpo egonik, bi esparru hauek, ezagutza eta sendabidea, elkarlotzen dituen baldintza gertatzen da: psikoanalisian jardun ahal izateko psikoanalisten prestakuntza. Honetan analista izan nahi duenak bere burua analizatu behar du lehenik, sendabide-tik pasa beraz, eta ezagutza teoriko eta kliniko mardula eskuratzen joan bizitzan zehar.

Esperimentatuz ikasten den ezagutza bat denez, aplikazio klinikotik haratago, egungo ezagutza sistemen munduarekin duen harremanaz aipamen batzuk egingo ditugu ondorengo lerrootan, pentsamolde baten sortzaile jennialari egin nahi diogun gorazarre xume baten gisan.

2. Egungo egoerari begirada. Zientzia, klinika eta psikoanalisia

Bere sorreraz geroztik psikoanalisia polemikoa izan bada, egun ere bide beretik jarraitzen duela agerikoa da. Klinikari eta psikopatologian giza sufri-menduari eta honek eragiten duen eritasunari erantzun berri bat eman nahian sortu zenean, garaiko testuinguru medikuak ezin izan zituen onartu psikoanaliak proposatzen zituen hastapenak.

Batetik sintomak gizabanakoarentzat iturri ezezaguna zutela zioena, hau da inkontzienteak zirela zioena. Garai hartan medikuen pentsamoldeak ez zuen begirune handirik psikologia eta psikismoarekiko, eta mitologia nahiz metafisikarekin edo deabrukeriarekin parekatzen zen ezagutza teoriko berri hura, nahiz eta hipnosiak eta ondoren sortu zen psikoterapia-jarduerak bere emaitzak agerian utzi.

Bestetik, planteamendu orokorra onartzea zaila izanik, are gehiago zen eritasunari buruzko sorburuaren planteamendua onartzea: muinean, eritasun-ean gatazka sexualak duen eragina. Hitz batean, XIX. mende puritanoan: onartezina.

Ordur geroztik, ezagutza-sistema honek bide luzea egin du, eta gaur egun gizartean, kulturen eta bizitzaren zenbait arlotan ezaguna eta gorai-patua izan arren, beste hainbat esparru eraginkorretan, garai hartako erasokortasun edo axolagabetasun berak dirauela dirudi, horretarako arrazoiak, puritanismoarenak ez ezik beste batzuk badira ere. Lan honetan zehar, zeharka bada ere, hauek azaltzen ahaleginduko gara.

Har ditzagun gure gizartearen bi zutabe nagusi: osasun-jardueraren egitura ofiziala eta hartarako prestatzeko erakundeak: osasun mentalaz arduratzen den Osakidetza eta unibertsitatea. Egun, jarduera kliniko ofizialean onartu

gabea izaten jarraitzen du psikoanalisiak: Euskal Herrian adibidez, psikoanalisia ez dago onartua Osakidetzaren eskaintzen artean. Berdin gertatzen da irakaskuntza-egituretan, hau da unibertsitatean; filosofian ematen den ikasgaiaren bat eta psikologian ematen diren bi ikasgaiak izan ezik, ez dago adibidez «Psikoanalisia»-ri dagokion ezagutza arlorik.

Ilido horretatik, gure ustetan, gaur egun bi arlo hauetan, hots, unibertsitatean nahiz jarduera klinikoaren erakundeetan, bereziki osasun mentalarren jarduera ofizialean, beste hainbat arlotan bezala, lege nagusi baten baldintzak agintzen du: merkatu legearenak, errentagarritasunak. Bezero, eskaintza, errendimendu, errentagarritasun, optimizazio, kalitate label eta antzeko kontzeptuen erabilpen eta hedadura dira pentsamolde eta eredu honen adibide. Hau da, Diskurtso Kapitalistan ezinbestean murgildurik gaude.

Merkatu testuinguru honetan, osasunaren arloko nahiz prestakuntzaren munduko kalitatearen bermea ezin da baldintza ekonomikoetan soilik oinarritu, arlo hauetan gizakiaren premiek errentagarritasuna bezain garrantzitsuak beharko lukete izan. Hala zerbitzu publikoak dira, edo gutxienez eskaintza publikoa «ere» baduten zerbitzuak dira.

Lege ekonomikoez bakarrik ezin baliatu izateak beste berme baten laguntza eskatzen du, eta hartara dator zientifikotasunaren laguntza. Zientifikotasunak ematen dio egungo jarduera askori bermea eta baliozkotasuna. Edozein jarduera, zientifikoa bada edo zientziaren metodoz ebalua eta neur badaiteke, onargarri bihurtzen da, berme bat eskaintzen duelakoan. Honek kontrolik gabeko edozein jarduera, sineskeria eta magiaren gehiegikeria eta kalteetatik egoki babesten du gizabanakoa, eta baita gizartea ere. Hau ukaezina da. Hala, giza-sufrimenduaren sortzaileak, demagun infekzio xumeenetik hasi eta linfoma bortitzenera, senda daitezkeen neurrian, egungo aurrerakuntza tekniko eta kimikoen bidez sendatzea eragingarriago dela ukaezina da, erritual magikoen edo pasmobelarren eta berbena belarren bidez baino.

Eztabaida hori ez da teoriko edo espekulatiboa soilik; aldiz, eragin zuzena du egunerokotasunean; hala, medikuntzaz kanpoko Psikologia Klinikoa-ren eta Psikologo Klinikoen ikaskuntza ofizialaren lekua eta balioa zalantzan daude. Egun LOPS (Ley de Ordenación de las Profesiones Sanitarias) legea gizabanakoen eta profesioaren defentsarako sortu dela badiote ere, bere eraginak oraindik jarduera klinikoaren askatasunerako mehatxu izaten jarraitzen du, bai unibertsitatean eta haren irakaskuntzan, bai jarduera profesionalean, eta, honen ondorioz, psikologian lizentziatutako zenbait belaunaldi ezingo dira jarduera klinikoan aritu, legea aplikatuz gero.

Hain zuzen ere, unibertsitatean prestatzen baitira lehen honetan jardun diren edo gero honetan jardungo diren profesionalak. Eta unibertsitateak oraindik ez du ematen osasun mentalean lan egin ahal izateko, bulegoak irekitzeko eta abarretarako LOPSak eskatzen duen psikologo klinikoaren titulaziorik.

Gure ustetan eta interes politikoak alde batera utzirik, egoera honen oinarrizko erantzulea honako hau da: zientzia dela gure gizartean edozein jarduerari egiatzko nahiz ustezko bermea eskaintzen diona.

Hala, konparaketa erraz batez agerian gelditzen da, zientziak ez diola psikismoaren jarduerari, organismoaren zaintzari bezalako aurrerakuntza teknologikorik eskaintzen. Adibidez, medikuntzan egun, gizabanakoaren partaidetzarik gabe ere egin daiteke haren organismoaren diagnosi eta sendabidea; hainbat analisi, TAC, elektrokardiograma, elektroentzefalograma eta abar, gizabanakoa kontziente ez egonda ere egin daitezke eta egin behar izaten dira.

Sufrimendu psikikoari dagokionez, aldiz, gizabanakoaren dena delako partaidetza derrigorrezkoa da. Fikzio filmetako teknologia psikismora aplikatzea eskura balego, ez litzateke agian halako arazorik gertatuko.

Baliabide teknologikoen ordez, hitzak jarraitzen du psikologiaren instrumentua izaten, bereziki klinikara bideratzerakoan, bere paradigma teorikoa edozein dela ere.

Esperientziak, nahiz zenbaitetan metodologia zientifiko zorrotzez ezin egiaztatu, agerian uzten du ondoez psikikoa eta gogamenezko sufrimendua hitzez sendatzen direla. Gizabanakoak, sufriarazten dioten egoerak ulertzen baditu, beren sorburutik gaur arte egoera hori nola joan den antolatzen eta egituratzen ulertzeak, sufrimendu honekiko hobeto kokatzeko aukera ematen dio, sofrikarioa eroaten laguntzen dio, eta hainbatetan, hitz honek duen esanahiaren pisu guztiaz, «sendatu» egiten du.

Hau ez da gaur egungo aurkikuntza, 1895az geroztik da ezaguna, urte horretan adierazten baitute Freud eta Breuerrek nola honen paziente izandako Anna, O.k eman zion izena sendabidean hitzaren garrantzia azpimarratzen duen jarduerari: *Talking cure*.

Burutiko eritasun eta sufrimenduaren ulerkuntza eta trataerara bideratu da psikoanalisi bere sorreraz geroztik, eta sufrimendu hori hedatzen den arlo guztiak tratatu nahi izan ditu hastapenetatik. Hala, egun esan daiteke klinika dela psikoanaliaren zutabe eta argudio nagusia.

Duela bi mendetatik, beraz, psikoanalisi hitzaren bidez antolatzen den sendabide eta jarduera gisa egituratzen da. Eta honetan datza hitzaren bidez eragiten duten jardueren auziaren oinarria: teknologiaren alboan, itxuraz hitza ahula gelditzen da nonbait.

Gure ustetan hori da egungo hainbat jarduera psikologiko eta terapeutikoren zientifikotasunarekiko arronka: teknologiak eskaintzen ez duen bermea zientzian bilatu nahia.

Eta hau bera da, hots, zientifikotasunarekiko harremana, psikoanaliari egiten zaizkion eskusio eta kritiken arrazoi nagusietako bat.

Bide honetatik, Caparrosek (1993) dioen lez, paradigma klinikoen eta beren esperimentazio mailaren artean antzinasuna da gakoa. Psikoanalisi litzateke zaharrena, ikerketa zientifikoarekiko interesetik urrutiratuena; erdibidean talde-jarduera analitikoak leudeke, egile honen arabera; eta konduktismoak eta kognitibismoak, berrienak izanik, esperimentazioa dute goiburu gisa.

Hasieran genioen bezala, zientziaren berme ukazina balu, agian gizartean, erakundeetan eta ezagutzaren erresuman duen kokapena beste bat izango litzateke, Kandlek azpimarratzen duenez (2001), eta egile honek aholkatzen duen moduan, psikoanaliaren ekarpenez zientzia aberastu ahal izango litzateke, eta alderantziz, psikoanalisi aberastu ahal izango litzateke zientziaren ekarpenez. Beste kontu bat da hau psikoanaliaren onerako ote litzatekeen.

3. Psikoanalisi eta zientzia

Esan dugunez, osasun mentalen egungo erakunde ofizialak eta unibertsi-tatea diskurtso zientifikotik abiatzen badira, zein da psikoanaliaren zientziarekiko egoera? Eta zein bere ondorioak?

Psikoanalisiak zientziarekiko duen harreman eta eztabaida ere ez da egungoa. Avilak (1994) dioen gisan, psikoanalisi eta zientziaren arteko auzia errepikaria dela argi dago. Espektror zabal batean, zientifikotasuna ukatzen dioten ertzetik hasi eta nolabaiteko zientifikotasuna eskaintzen dioten ertzeraino hedatzen da espektror hori.

Eta espektror honetan hiru etapa nabarmenki bereziak aurki ditzakegu.

3.1. Freud eta Zientzia medikua

Aipatu dugunez, Freuden pentsamoldearen zientifikotasuna oso eztabaidatua bada ere, eztabaida honi egiten diogun ekarpen gisan, bere prestakuntza medikuari inoiz ez ziola uko egin azpimarratu behar da, eta honen berri hiru bidetatik eman daiteke:

- a. terminologia eta kontzeptuak;
- b. arrazoitzeko modua eta
- c. baliabide horrek eskainitako zenbait ekarpen.

Eta paradoxikoa bada ere, psikoanaliaren aurkari porrokatu baten aipamenaz baliatuko gara Freud zientifikotasuna aztertzeko: Karl Popper.

a. Terminologia eta kontzeptuak. Albornozek (2003) Freud eta Lacanen zientziarekiko ekarpenak besterentze eta bereizketa-eragiketa batekin aldera-

tzen ditu. Eragiketa hau, psikoanalisi Lacaniarraren ikusmoldean, subjektu baten sorreraren baldintza da: «Beste» baten esan eta desioetara besterenduz sortzen da subjektua. Baina, subjektua gauzatuko bada, «Beste» horrengandik bereizi beharra du. Gizabanakoaren sorreran, nahiz edozein-pentsamolde sistemaren sorreran derrigorrezko suertatzen den prozesua da hau. Artzeren poesia ezagun batean ikus daiteke honen islada egokia: Bi kate, biak ebaki beharrekoak...

Hala, Freudek bere garaiarekiko besterentzearen baitan sortzen du bere pentsamolde sistema; ezin zitekeen beste modu batera izan. Bere garaia, batez ere, fisikaren aurkikuntzen garaia izanik, termodinamikaren eskema jarraitzen du. Hala: *Libido* kontzeptua, energiaren adierazpen gisa azaltzea, edo teoria psikoanalitiakoaren *ikuspuntu ekonomiko* deituan *inbestimendua*, *kontrainbestimendua* eta *desinbestimendua* bezalako oinarritzko kontzeptuak, *bulkadaren* definizioa, *transferentzia*, *erresistentzia*, *inkontzientea* bera eta abarretan, termodinamikaren hastapen eta pentsamoldetik datozela nabaria da Freuden ulermen eta pentsamoldean.

Kontzeptu eta terminologia termodinamikoaren bidez giza psikismoa eta bere antolakuntza pentsatzean datza *bereizkuntza* prozesua.

Halere, terminologia edo pentsamolde batek ez dio proposamen eta teoria bati zientifikotasunik ematen; elementu garrantzizkoa izan daitekeen arren, ez da nahikoa.

b. Arrazoitzeko modua. Freudi buruzko biografia interesgarri baten egileak dioen bezala, Freud, Darwinen bidaia eta aurkikuntzez liluraturik zegoen, eta medikuntzan urteak eman ondoren, Darwinen gisa, itsasontzi batean ikerketarako instrumentuz hornitutako laborategi bat eta ikerketarako denbora zituena gogoko (Gay 1989, 50 or). Naturalismotik sortu ote zitzaion medikuntzarako zaletasuna ezin dugu egiaztatu, baina bere lehen ikasketak eta jarduera medikuntzaren eta bereziki histologiaren arlokoak izanik, honek bere idatzietan eragina izan zuela ikus dezakegu.

Hala, bere idazlan guztietan ikus dezakegu ikerketa eta ezagutza zientifikoaren aipamena, nahiz eta hau ere ez den nahikoa sormen bat zientifikotzat hartzeko.

Bere bizitzaren bukaera aldera, nahiz eta ikerketa zientifikorako derrigorrezkoa ikusten zuen, zuhurtziaz epaitzen zuen bere irudimenari garrantzia emateko joera. Sormenaren eta egiaztatzearen arteko dialektika hau bera adierazten digu epistemologiak.

Gure proposamena ez da psikoanaliaren zientifikotasuna aldarrikatzea. Bai ordea zientziaren epistemologiaren oinarri nagusien mailan kokaturik, Freuden lanean, epistemologiaren zenbait hastapen nola azaltzen diren ikustea.

Kontuan hartu behar da, beti ere, Freuden garaian ez zegoela gaur egun bezain garatua ezagutza-sistema zientifikoa eta epistemologia. Hauek aplikatuz gero, Wundt beraren zientifikotasuna ere agian zalantzan legoke.

Popperrek, zientziaren paradigman psikologismoa ekidin nahian, hipotesiak eraikitzerakoan, irudimenari ematen dio garrantzia, hau logika zientifikotik at gelditzen dela azpimarratuz.

Idea berri baten sorrera intuizio sortzailearen edo irrazionaltasunaren eremuan kokatzen da, eta ondoren dator, ideari seriooki eutsi ahal izateko, egiaztatze sistematikoa, eta hau da zientziaren logikan sartzen dena. Popperren arabera, «aurkikuntza orok badu «irrazionala» den elementuren bat edo «intuizio sortzailearen bat». Einsteinek hala dio lege unibertsalen bilaketan ... eta hauetatik lor daiteke dedukzio soilez munduaren irudi bat. Ez da hauek gidatuko dituen bide logikorik» (Popper 2001, 31 or.).

Lehen pausoa intuizioa eta irrazionaltasuna bada, ondoren, ideia egiaztatzerakoan, «faltsazioari» ematen dio Popperrek gaitasun gehien egiaztatze sistemetan (errepikatu egiten da «egiaztatzea»). Hau da, ikerlariak edo egiaztatzaileak, sortu duen hipotesia faltsua dela azaltzen ahalegindu behar du, hau lortu ezean, egia dela bakarrik ondoriozta daitekeelako.

Faltsazioarekin batera, zientziaren paradigman haren ordezeko balioa izaten duena hipotesia beste behatzaile batek egiaztatu ahal izatea da. Hau da, hipotesi bat sortu duenak egiaztatzeaz gain, behatzaile edo ikerlari ezberdin batek ere erabili eta kontrastatu ahal izatea.

Bi hastapen hauek, edo berauen oinarriak, ikus ditzakegu Freuden psikoanalisian.

Popperren lehen hastapenari buruz (ideiaren irudikapena eta egiaztatzea), bi pauso hauen artean koka dezakegu Freuden idatziek agerian uzten duten arrazoibidea.

Hala, Freudek joko dialektiko bat jarraitzen du idatzi gehienetan, eta ondoko pauso hauek jarraitzen ditu: lehenik hipotesi bat aurkezten du, ondoren hipotesi horren kontrako argudioak proposatzen ditu (beste ikusmoldeetatik sortuak, garaikoak edo irudikatutakoak), hipotesi hauei erantzun arrazoituak emanez dialektizatzen du, eta, azkenik, hipotesiaren egiaztapena azaltzen du.

Baina, bere esanetan, espekulazio posible batetatik irten nahian, hipotesi teorikoak klinikara daramatza ondoren eta esperientzia klinikoarekin kontrastatzen ditu, aldiro eta pausoz pauso.

Honen adibide bat aipatzeagatik *Mas allá del principio del placer* (1920a), edo Historial klinikoen multzoan sailkatzen diren *Análisis fragmentario de una histeria* (1905), *Análisis de la fobia de un niño de cinco años* (1909), *Análisis*

de un caso de Neurosis Obsesiva (1909), edo *Duelo y melancolia* (1915) aipatuko nituzke, lagin txiki bat aipatzeagatik.

Epistemologiaren begiradatik, beti kritika daiteke bere hipotesiak berak egiaztatzen dituela eta honek espekulazio hutsean uzten dituela bere ekarpenak.

c. Baliabide horrek eskainitako zenbait ekarpen. Zientziaren bigarren has-tapenari jarraituz, klinikan kontrastatutako hainbat ekarpen, ondorengo egile eta klinikoentzat paradigma bihurtu dira, eta zenbaitetan psikoanalisitik urrun dagoen psikiatriarentzat ere bai. Adibidez, Histeria eta Neurosi obsesi-boa bereizteko lagungarri ziren mekanismoen deskribapena (1984a), edo Neurosi Obsesiboaren psikebarnearen antolakuntza ereduaren (1909), edo psiko-siaren (1910j) edo gizatalde mugimenduen deskribapenak (1921a), adibide batzuk jartzeagatik.

Baina Freuden medikuntza ikusmoldearen azalpen nabariena, batetik, eta berak sorturiko hipotesien ondorengo egileen egiaztapenaren adibide garbiena bestetik, agian 1895eko *Proyecto de una psicología para neurólogos*-en azaltzen zaigu. Bertan eta neurona oraindik aurkitzeaz zegoen momentuan, Freudek *kontzientzia* eta *inkontzientea*, *arreta*, *oroimena* eta halako prozesu psikologikoak esplikatu zituen oinarri neurologikoak finkatu zituen.

Lan sakon honen muinean, zelularen funtzionamendua aurreikusten du. Hala, jarduera psikikoa, zelulen artean energia kantitate bat garraiatzeak erabakitzen du. Kitzikaduraren aurrean neuronek deskargara jotzen dute, baina energiak beraietan arrasto bat uzten du. Berez neurona multzo ezberdinak leudeke energia igarotzen uztearen edo ez uztearen arabera (*psi*, *phi* eta *gama*). Honetatik abiatuta, hautematea neurona iragazkorrek antolatzen dute, eta oroimena, berriz, neurona iragazgaitzek. Eta iragazkortasuna edo iragazgaitzasuna energia pasatzen uztean edo ez uztean datza.

Hala, gure esperientziaren bizipena, hautematea, neuronon kitzikadurak dakar. Neurona mota batzuk kitzikatu eta deskargatu egiten dira, kitzikatze berri batzuen zain. Besteak, berriz, beren karga-maila bat mantenduz markaturik gelditzen dira, eta hauek osatzen dute gure oroimena.

Kontzientzia ere antzeko mekanismoz osatuta dago. Nerbio sistemak neurona klase ezberdinak ditu, oroimena eta hautematea ahalbidetzen dutenak, esaterako. Hauen bereizgarrietako bat, estimuluaren intentsitatearen arabera kitzikatuak izatean edo ez izatean datza. Hala, kanpoko mundutik jasotzen den estimuluaren intentsitatearen arabera, nerbio sistemak kitzi-kaduraren energia zelula batzuetatik edo besteetatik pasaraziko du, edo bestela esanda, energia kantitate zehatz bat eragiten duen estimuluaren ka-suan, zelula multzo batetatik pasaraziko du nerbio sistemak energia nerbio-soa; energia txikiagoa jasotzen dutenak, berriz, beste neurona multzo bate-tatik.

Hau da, intentsitate maila jakin baterako, hautematearen neuronetatik, beste intentsitate maila batean berriz oroimeneko zeluletara doa, hainbate-tan hautemateatik pasatu gabe.

Honek zera esan nahi du psikismoaren funtzionamenduan, gure ingurunearen hautematea ez dela guztia kontziente, gertakizunak sumatu ditzakegu, hauteman, baina horrek ez du esan nahi denetaz kontzientziarik dugunik, nahiz eta gertakizun horien pertzepzioa gure baitan gelditu; kontzientziatik kanpo, beraz. Bestela esanda, inkontzienteak dira. Inkontzientearen fenomeno hau medikuntzaren froga eta eskemetan finkatzen ahalegindu zen Freud lan honetan.

Epistemologiak jartzen dizkigun baldintzak jarraituz (egiaztapena beste behatzaile batzuetatik etortzea, ez norberarenetik bakarrik), urte batzuk geroago beste zenbait egilek, hala nola Chambonek (1995) edo Solmsek (2004), baina batez ere laborategiko frogetan oinarritutako ikerketek egiaztatu dute (Damasio 2006) Freuden hipotesiak bide zuzenetik zihoazela, garaiko baliabideen urritasuna kontuan harturik.

Hala, Solmsek, Damasio, Le Doux eta Kandelen lanei buruzko iruzkinak eginez, zera dio: Freudek giza adimenari eskainitako azalpena baino ego-kiagorik ez dagoela (2004, 52 or.) eta orokorrean egungo neurozientziek psikoanalisen teoriaren egiaztapena ekarri dutela.

Era berean, Chambonek dio (1995) inkontzientearen eta bere funtzionamenduen hipotesia eta azalpena egiaztatua gelditzen dela, hein handi batean, neurozientzien ekarpenekin. Eta zientziak medikuntzari eskaintzen dion teknologiaz baliatzen dira hauek, hau da, zientzia gogorren baliabideak dituzte eskura. Oroimenaren funtzionamendua, energia elektriko bidez darman informazioaren kudeaketa eta gordetzea, garun-azaleko barne egituretan (hipokanpoan eta ondoren garun azalean), nola gertatzen den egiaztatu ahal izan da neurozientzietako teknologia berrien bidez, eta Freuden proposamenen bidea jarraitzen duela ikusi da.

Baina egiaztapen hauek orokorregiak direla argudia daiteke betiere, eta, adibidez, psikoanalisi onartzen ez duten eta arbuiatzen duten paradigmen (biomedikoa edo kognitiboa, esaterako) egiaztatzea ere badakartela esan daiteke.

Pentsamolde honi Freudek jarraitu bazion ere, 1900etik aurrera oinarri psikikoak histologiaren bidez azaltzeari utzi zion eta psikologian eta metapsikologian oinarritu zituen bere ekarpenak.

Zientziaren hipotesien egiaztapenen bidetik jarraitu ez bazuen ere berak, ondorengoek eta bereziki xx. mende erdialdera, testuinguruan gertatzen ari zen zientziaren psikologiarako aplikagarritasunaren eraginez, psikoanalisen zientifikotasun eza asko azpimarratu zen eta honen ondorioz, psikoanalisen hainbat erakunde eta jarraitzaile psikoanalisi zientifikotasunaren legetara moldatzen ahalegindu ziren.

3.2. Posfreudiarrak deituak: psikoanalisitik zientziarantz

Postfreudiartzat hartuko ditugu, askatasunez, Klein eta egungo bere jarraitzaileak, eta baita Anafreudismoa deituriko mugimendua ere. Pentsamolde hauen gaur egungo ondorengoa, batez ere Estatu Batuetan Self-Psychology eta Ego-Psychology deituraz ezagutzen den mugimendua da.

Gehiegi ez luzatzearren, neurozientzien ekarpenei balorerik kendu gabe, Freuden ondorengoen artean, batez ere Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan garatutako psikoanalisi izan da gehien ahalegindu dena zientzietan erabiltzen den metodologia psikoanalisiari aplikatzen, beste paradigma «zientifikoago» batzuen bultzadaz.

Hauetan gehienak, merkatuaren eskaeraren polemikari erantzun ahal izateko, sendabide psikoanalitikoaren eraginkortasuna frogatuko duten ikerketetara bideratu dira.

Menninger proiektutik hasi (Kernberg eta kideak 1972) eta Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoak (IPA) argitaratutako azken txosten eta bilduman azaltzen direnetaraino (Fonagy 2003) aurki ditzakegu psikoanalisi ikerketa esperimentalekin uztartu nahi izan duten hainbat saio eta lan.

Hiru gai dira nagusiak halako ikerketetan: psikoterapia psikoanalitikoaren emaitzak, emaitza horiek ulertzeko prozesuen deskribapen objektiboa eta prozesuen baldintzak.

Halakoetan, beste arlo batzuetara zabaldu den metodo zientifikoaren baldintzak bete nahi izaten dira psikologian, eta norabide hori hartzen dute ahaleginek, bai ikerketan eta baita jarduera terapeutikoan ere.

Hala, Fonagyk aipatutako txostenean, psikoanalisi zientifikotasunaren irizpideetara nola gerturutzen den aztertzen du. Zientifikotasunerako honako irizpide hauek deskribatzen ditu: proposamenen egiaztapena, kuantifikazioa, errepikagarritasuna, aurreikuspen gaitasuna, behatzaile anitzek egiaztatzea, terminologia gardena.

Psikoanalisi sendabide teknika bezala harturik, bere berariazkotasunean (sendabidea pazientearen historizitatean oinarritzea, subjektua eta behaketa-objektua berbera izatea, hainbat hastapenen frogaezintasuna, eta abar) datza baldintza zientifikoekin kontrajarrita egotea. Halere, zenbait ikerketa egin daitezke hastapen zientifikoak jarraituz, eta esparru honetan kokatzen den hainbat psikoanalista ahalegindu da eta ahalegintzen da psikoanalisi logika zientifikoan sartzen. Kandelen lan eta asmoak, zientziak eta psikoanalisiak elkarri ekartzen diotenari buruzkoak, bultzada handia dira ahalegin horretan.

Planteamendu hauei egiten zaien kritika ondoren azalduko den ikuspuntutik egiten da batez ere, hots, zientifikotasunak irabazi egiten duela, psikoanalitikoaren berariazkotasunaren kaltetan.

Logika xume batean adierazita, psikoanalisiak gizabanakoaren berariaz-kotasunaren bidea hartzen du; zientziak eta edozein metodo zientifikok, aldiz, objektibotasunarena.

3.3. Lacan. Zientziaren psikoanalisi

Oso luze joko luke Lacanek psikoanaliari egiten dion iraultza eta ekarpena deskribatzeak, baina bere ikusmoldearen mamiaz baliatuko gara funtsezko argudioa deskribatzeko eta, batez ere, hurrengo puntura bideratzeko.

Freuden berritzulera aldarrikatuz, hain zuzen ere, postfreudiarrek eragindako desbideratzeei aurre eginez, Lacanek Freuden esaldi bati ematen dion bihurtura hartuko dugu argudioaren zutabetzat.

Freudentzat, sendabidea lortzeko inkontzientea kontziente egitea bazen psikoanaliaren helburua, honako esaldi honetan laburbil zitekeen: *Wo es war sol Ich werden*, edo «Zera zen lekura *nia* betor», Lacanek bere iraultetan «Zera zen lekura, *subjektua* betor» proposatzen du. Eta ezberdintasun txiki hori ez da nolana hiko, psikoanaliaren bi norabide eta orientabide ezberdintzen baititu.

Lacanen psikoanaliarekiko orientazio eta helburua horretan datza: postfreudiarrek *niaren* psikologia bihurtu zuten psikoanalisi, eta Freuden aurkikuntza nagusia, inkontzientearena, zapuztuta gelditzen da hala. *Nian* zentratzen den psikoanalisi, *niaren* bidez bideratzen dena, prozesu kontziente eta prekontzienteetan mugitzen da soilik, baina inkontzientearen munduan murgildu gabe.

Aldiz, Lacanen aldarrikapen eta teorizazio nagusietako bat *subjektua* da. Porgeren hitzetan (1996), Freudek erdibidean utzitako galderari erantzuna bilatzen ahalegintzen da Lacan kontzeptu honekin: nola ulertu inkontzientea, hitzetan jarri orduko kontzientea bada, prozesu kontzienteaz bakarrik hitz egin badaiteke? Lacanek honi ematen dion erantzuna: *subjektua* da, *inkontzientearen subjektua*.

Subjektua, nolabait adierazteko, gizaki orok esperimintatzen duen norbererikiko ezezagutzaren bilduma eta agentea da. Ezezagutza honen adibide da ingurukoek gizabanako bati buruz egiten duten deskribapenaren eta norberak egiten duenaren arteko ezberdintasuna. Edo norberak egin, esan edo sentitzen dituen jabetu gabeko zenbait ekintza, esaldi, sentipen, amets eta abar. Gertakizun horiek esperimintatzen edo gertatzen ari diren bitartean gizabanakoa ez da jabetzen; aldiz, egin edo gertatu ondoren, bereak direla ziur dago, hots, bera hori izanaren ziurtasuna du. Hala, subjektua adierazteko modu bakarra, «*ni hori izan naiz*» da, ...nintzanean jabetu ez arren. Edo Lacanek Hegelen «pentsatzen dudanez, banaiz» esaldiari bihurtura eginaz adierazten duen moduan: «pentsatzen ez dudanez, eta naizen unean ez dut pensatzen».

Hau da, gizabanakoa ez da inoiz erabat bere buruarekiko ezaguna, beti bada zatikatze subjektibo bat. Angustia da honen frogarik argiena: zerk larritzen duen jakin ez arren, larritasunaren esperientzia ukaezina da.

Honetatik abiatuta, zientziaren hastapen nagusia honela adieraz daiteke Lacanen arabera: $A \neq A$, eta psikoanalisitik abiatuta agerian gelditzen dena, hain zuzen ere, gizabanakoa, autokontzientziatik abiatzen den neurrian, ezin dela inoiz ere erabat ezagutu; beraz ezin esan erabat «ni hau naiz», hau da, ezin esan $ni = ni$.

Are gehiago «ni» hori irudimenezko eraikuntza bat da, uste hutsa. Esperientzia xume batek uzten du hau agerian: gaur egungo aurrerapenez baliatuz, gizakiak bere burua bideo batean filmatua ikusten duenean, hainbat ezaugarri badira onartu edo ezagutzen ez dituenak, besteen ikuspegitik, aldiz, nabariak eta propioak zaizkionak.

Edo garapenean ikus daitekeen moduan, haurrak ez du bere irudiaren kontzientziarik sei hilabete eduki aurretik, gutxi gorabehera, eta norbereganako kontzientzia, bere irudiaren aurrean, ispiluan bere burua ikustean, beste baten begiradaren egiaztapenetik datorkio (Lacan 1966, 2005). Baina xehe-tasun batez ezin gara ahaztu: gizabanakoak lehenbizi ikusten duen bere irudia beste norbaitena bezala zekusan, eta halako batean (Ispilu-fasea) begien aurrean ikusten duen hori bera dela konturatzen da; «beste hori beraz neu naiz». Hau da *niaren* paradoxa, lehenik *beste* bat izatea.

Gizabanakoak bere buruaz duen errepresentazioa, norberatasuna edo *ni* hori, beraz, irudi batean oinarritzen da, irudimenezkoa da, eta ez du inolaz ere gizabanakoaren izate osoa adierazten. Hau da Freuden inkontzientearen aurkikuntza, eta horretara itzuli nahi izan zuen Lacanek, hots, inkontzientearen *subjektua* azalaraztera, eta hartara bideratua dago bere teoria eta bere praktika.

Beraz, Lacanen teorizazioa, besteak beste, subjektibitatearen aurkikuntza eta aldarrikapena da.

Honi jarraiki, Lacan subjektuan finkatzen da, eta, zientzia eta psikoanalisi-az hitz egiterakoan, zientziak subjektua «*forkluitu*» egiten duela dio. *Forklusio* hitza, zuzenbidean erabili ohi den terminoa izanik, *aintzat ez hartu*, edo hobeto, *gaitzetsi* bezala itzul daiteke. Beraz, zientziak, zientziaren diskurtsoak, subjektua gaitzetsi egiten duela dio Lacanek.

Esaldi honen aplikazioetako bat metodologia zientifikoan dakusagu. Hain zuzen, zientziaren baldintzetako bat objektibitatea dela genioen, kuantifikazioa eta errepikakortasuna bermatu ahal izateko. Hau da, esperimentu bat, bi esperimentatzailek berdin egin dezakete. Hala, aldagaien kontrola gehitu egiten da eta «subjektibitatea» murriztu. Psikoanalisian ikerketa-metodoak erabili nahi izan dituztenek honekin egin dute topo, eta batzuen irtenbidea metodologia zientifikoaren baldintzen aldera jotzea izan da.

Hauxe da psikoanalisi posfreudiarraren desbiderapenetako bat. Adibide-rik bortitzena, metodologia zientifikoari jarraiki, psikoterapia prozesu bezala harturik, zein terapeutak egiten duen kontuan hartu gabe, emaitza berberak lortu behar lituzkeela helburutzat hartzea da.

Honek psikoanaliaren baliabide nagusia ukatu egiten du: transferentzia ukatzen du. Zeren, egia izanik psikoanalisi orok badituela baldintza finkoak eta antzeko prozedurak, psikoanalisi bezala izendatu ahal izateko, inoiz ez da berdin bilakatuko psikoanaliaren esperientzia, bi analista ezberdinekin, bi-zipena erabat norbere barnekoa eta transferiezina delako. Hau da, esperien-tzia erabat subjektiboa, norberatasunarekin aurkitzea, edo Lacanen hitzetan esanda: inkontzientearen subjektuaren esperientzia.

4. Ondorio gisa

Lacaneek Freudi buruz egiten duen irakurketa honetan oinarrituz, hasie-ran genioen psikoanaliaren eta osasun- eta irakaskuntza-erakundeen arteko harremana hobeto uler dezakegu orain.

Hari-bide honetatik psikoanalisi eta zientziaren diskurtsoa funtsezko kontraesanean daudenez, diskurtso honetan oinarritzen diren osasun menta-laren jarduera instituzionalarekiko eta unibertsitatearekiko ere kontraesan hori gertatuko da. Hau da, gure ustetan, erakunde hauetan psikoanaliak duen arrotzasunaren muina.

Osasun mentala medikuntzaren parte den heinean, zientziak ahalbide-tzen dituen baliabidetara joko du bere jardueran, baliabide kimikoetara be-reziki. Eta hauetan, baliabide kimikoetan, partaidetza txikiagoa du gizaba-nakoak: hau da, gizabanako honek bere esperientziaren subjektu izatea ez da medikuntza jardueran helburu, zenbaitetan traba bat baizik. Hitzak, nor-beraz hitz egiteak, norbere esperientziaren jabetzak, ez du garrantzirik zien-tzian oinarritutako ikusmoldean. Sufrimenduz abiatzen den gizabanakoa-rentzat hau nahikoa ote den, besterik eskatzen ote duen, beste kontu bat da.

Irakaskuntza unibertsitarioan ere, giza arloari dagokionez, teknologiaren baliabideak oraindik guztiz erabili ezin diren neurrian, metodologia zientifi-koa aldarrikatzen da ezagutzaren zutabe nagusitzat. Objektibotasuna aldarri-katzen bada ezagutzaren oinarritzko baldintzatzat, subjektibitatea helburu duen ezagutza eta jardueraren kokapena arrotza izango da beti ere.

Halere, honetan ere instituzioaren abstrakzioak baino gehiago, gizabana-koak ematen dio zilegitasuna psikoanalisi unibertsitatean kokatzeari, hau da ikaslegoaren kopuru baten desio eta jakinminak.

Auzi honi ere eman zion begirada Freudek berak, eta 1918ko artikuluxume bezain interesgarrian erantzun bat proposatu zuen. Garai hartan psikologia zen unibertsitatetik at zegoena eta Freudek Medikuntza ikasketen barruan egon behar zuela aldarrikatzen zuen.

Hiru egiaztapen azpimarra daitezke lan honetan: gogo bat, eskusioa eta honen ondorioak. Lehena, edozein psikoanalistarentzat desiragarri litzatekeela psikoanalisi unibertsitatean irakatsia izatea, baina hori besterik ez da, desio bat.

Bigarren egiaztapena, psikoanalisi unibertsitateko irakaskuntzan teoriakoa besterik ezin izan, bere prestakuntza sistemagatik (analista izan nahi duenak luzaroan bere burua paziente gisa analizatu beharra).

Hirugarrena, psikoanalisten erakundeek unibertsitatetik kanpo egote horri zor dio psikoanalisiak bere izate eta garapena: agerikoa da, dio Freudek lan honetan, unibertsitatetik kanpo dauden neurrian beteko dutela (erakundeek) zuzenen beraien prestakuntza-funtzioa.

Hau da, Freud berarentzat, psikoanalisten prestakuntzarako, egokiagoa da berau unibertsitatetik kanpo egotea, berariazko eskola eta erakundeen esku.

Egiaztapen honen ondorioa, gure hariari jarraituz, honako hau da: psikoanalisiak bere espezifikotasuna eta garapena bermeaz mantentzeko, bere berezko metodoei jarraitzea dela baldintza nagusia.

Psikoanalisi eskola ezberdinek, psikoanalisiaren prestakuntzak hiru zutabe nagusi dituela onartzen dute, eta derrigorrezkotzat dute. Lehena eta ezinbestekoa, psikoanalista izan nahi duenaren analisisa da, lehen genioenez. Honekin batera, prestakuntza teorikoa dago; eta azkenik, psikoanalistak daramatzan zenbait pazienteren gainbegirada edo superbisioa.

Baina lerro hauetan aipatu dugun argudio sistemari jarraituz, eskola denek dute nolabaiteko prestakuntzaren egiaztapena. Hala, psikoanalisiaren jarduten duten zenbait erakunde edo eskolatan, epaile batzuen aurrean beren gaitasun profesioanalaren frogak eman beharra. Besteetan, berriz, norbere analisiaren testigantza eskaintzea, psikoanalisiaren gai nagusietan, aurrerapen teorikoa aberasteko. Jarduera hauetan norbere esperientzia, bai jarduerarena baina batez ere norbere analisiarena, beste batzuekin kontrastean eta eztabaidan jartzen da. Hain zuzen ere, zientziari kontrolagaitza zaion «aldagai subjektiboa» ekidin ordez, aldarrikatu, auzian jarri eta ezagutzaren garapenaren mesederako eskaintzea da.

Hipotesi eta esperientzia analitikoaren egiaztapena bera bezain esanguratsua da hura zertan datzan laburki aipatzea. Psikoanalisiaren ikusmolde denek ontzat eman badute *inkontzientea kontziente egitea* dela psikoanalisiaren mui-na. Esaldi horren esanahien artean ezberdintasunak azaltzen joan badira ere.

Aipaturiko azken ikusmolde lacaniarrari jarraiki, egile honek adierazten du gure ustetan zertan datzan inkontzientea kontziente egitearen, esaldiaren

mamia. Egile honen hitzetan eta *Angustiari buruzko mintegian*, gai hau psikoanalisian nola ulertu izan den azaltzerakoan, hiru modutako metodoak aipatzen ditu: *katalogo metodoa*, *analogoaren metodoa* eta *giltza metodoa* (Lacan 2004, 20 or.). Bereizketa honi adibideak jarriko dizkiogu esan nahi dugunaren azalpen gisa, betiere hauetan, egileak dioena baino haratago joanda.

Katalogo-metodoak, edo taxonomiak, psikopatologian oso ugari dira, eta, adibidez, larritasunaren edo beste edozein gertaera psikopatologikoren deskribapen eta sailkapena adierazten dute, eta hauek egoera baten ezagutzari edo esanahiei buruz ezer gutxiko ekarpena egiten dute.

Analogoaren metodoak, aldiz, ekarpen gehiago eskaintzen du, eta finean kokapen ezberdinetatik edo inguruko ezagutza ezberdinetatik egiten du gertakizun baten deskribapena. Egile honen ikusmoldean, halako metodo batek antropologia batera garamatza psikoanalisiari dagokionez, baina honek ere, esanahiaz ezer gutxi eskaintzen du.

Azkenik, *giltza-metodoa* litzateke esanahien berri ematen duena. Eta hau da, hain zuzen, gure ustetan, psikoanalisiaren ikusmolde honen «giltzarri». Inkontzientearen ezagutza ez da lerrokatzeetan, sailkapenetan edo analogie-tan gauzatzen. Freuden asmakizunaren metodo berariazkoa gizabanakoa bera (*subjektua* erabil daiteke, kasuan) txundituta uzten duen aurkikuntzetara daraman metodoa da. Txistean gertatzen den moduan, hitz batek, esaldi batean, esanahi berri bat hartzen du. Hala esaldia, hitza edo esaten dena erabat aldatuz, esan nahi dena agerian uzten du, esanaren gainetik. Honek eragiten du entzulearengan harridura, irribarra edo barregura, betiere errepikatzen ez den neurrian; eta hala eginez gero barrea sortzeko gaitasuna galtzen du.

Bestela esanda, txistea bezala, analisiak eragiten duen ezagutza metafora bat da, eta bertan esanahia, bere izateari, sintomei eta abarri buruzko esanahia, bat-batean azaltzen zaio gizabanakoari. Hala suertatzen da ezagutza psikoanalitikoan, eta hartatik bere eragin, terapeutiko eta eraldatzailea, eta bere ondorioak.

Eraldaketa honen berri subjektibitate bakarrak eman daiteke, norberaren baitatik bakarrak esperimintatzen baita, eta hargatik halako ñabardurak eta exijentziak psikoanalisiaren eta sugestioaren bereizketan, bai Freudengan (1904, 1905) eta bai Lacanengan (1984).

Amaitzeko, beraz, hau da aldarrikatzen duguna: behaketa, trataera eta ikasketa-metodo berariazkoa objektu berariazkoarentzat, eta hau da muina, zientziaren metodoak ukitu ezin duen mamia. Psikoanalisiaren berariazkotasuna galtzea, emaitzen zabalkuntzaren onuragarritasunerako? Erronka baino gehiago, hautaketa da.

Freudek sortu zuenetik gaur egun arte psikoanalisiak zientziarekiko izan duen harremana ardatz gisa harturik, egile ospetsu honen teoriaren zenbait puntu argitu direlakoan amaitzen dugu idatzi hau.

Erreferentzia bibliografikoak

- ALBORNOZ, A. (2003), *Ciencia y psicoanálisis*. Acheronta. Psiconet.net
- AVILA ESPADA, A. (1994), «Contribuciones de la investigación sobre psicoterapia psicoanalítica». In A. Espada eta P.i. Bullich (arg.) *Manual de técnicas de psicoterapia*, Madrid: Siglo XXI, 625-666 or.
- BREUER, J. eta FREUD, S. (1893-95), «Estudios sobre la Histeria». In *Sigmund Freud Obras completas*, Buenos Aires: Amorrortu.
- CAPARRÓS, N., GARCÍA, A. eta Avila, A. (1993), «El Grupo Operativo, aportaciones sobre Teoría y Técnica». In A. Avila Espada (arg.), *Manual de psicoterapia de grupo analítico vincular*, Madrid: Quipú, 291-314 or.
- CHAMBON, P. (1995), «La science donne raison à Freud». *Science et Vie* 933: 69-77.
- DAMASIO, A. (2006), *El error de Descartes: la emoción, la razón y el cerebro humano*. Barcelona: Crítica.
- FONAGY, P. eta KIDEAK (2003), «Una revisión de puertas abiertas de los estudios de resultado en psicoanálisis». *www.spdecaracas.com*: 1-105.
- FREUD, S. (1894 a), «Las neuropsicosis de defensa». In *Obras completas*, Madrid: Biblioteca Nueva, 1972, 169-177 or.
- FREUD, S. (1894), «Obsesiones y fobias». In *Obras completas*, Madrid: Biblioteca Nueva, 1972, 178-183 or.
- FREUD, S. (1895e[1950]), «Proyecto de una psicología para neurólogos». In *Sigmund Freud Obras completas*, Madrid: Biblioteca Nueva, 1972, 209-275 or.
- FREUD, S. (1896), «Nuevas observaciones sobre las neuropsicosis de defensa». In *Sigmund Freud Obras completas*, Madrid: Biblioteca Nueva, 1972, 169-178 or.
- FREUD, S. (1900), «La interpretación de los sueños». In *Sigmund Freud Obras completas*, Madrid: Biblioteca Nueva, 1972, 343-754 or.
- FREUD, S. (1904 [1905]), «Psicoterapia (Tratamiento por el espíritu)». In *Sigmund Freud Obras Completas*, Madrid: Biblioteca Nueva, 1972, 1014-1027 or.
- FREUD, S. (1904), «Sobre psicoterapia. Nueva Visión». In *Sigmund Freud Obras Completas*, Madrid: Biblioteca Nueva, 1972, 1007-1013.
- FREUD, S. (1905), «Análisis fragmentario de una histeria». In *Sigmund Freud Obras completas*, Madrid: Biblioteca Nueva, 1972, 933-1002 or.
- FREUD, S. (1909), «Análisis de un caso de neurosis obsesiva (El hombre de las ratas)». In *Sigmund Freud Obras completas*, Madrid: Biblioteca Nueva, 1972, 1441-1486 or.
- FREUD, S. (1910 j (apendice 1912)), «Observaciones psicoanalíticas sobre un caso de Paranoia». In *Sigmund Freud Obras completas*, Madrid: Biblioteca Nueva, 1972, 1487-1528 or.
- FREUD, S. (1915[1917]), «Duelo y melancolía». In *Sigmund Freud Obras completas*, Madrid: Biblioteca Nueva, 1972, 2091-2100 or.
- FREUD, S. (1919-a (1918)), «Sobre el psicoanálisis en la universidad». In *Sigmund Freud Obras completas*, Madrid: Biblioteca Nueva, 1972, 2454-2456 or.
- FREUD, S. (1920a), «Más allá del principio del placer». In *Sigmund Freud Obras completas*, Madrid: Biblioteca Nueva, 1972, 2507-2541 or.
- FREUD, S. (1921a), «Psicología de las masas y análisis del yo». In *Sigmund Freud Obras completas*, Madrid: Biblioteca Nueva, 1972, 2563-2610 or.
- GAY, P. (1989), *Freud. Una vida de nuestro tiempo*. Barcelona: Paidós.
- KANDEL, R. E. (2001), «Un nuevo marco conceptual de trabajo para la psiquiatría». *Clínica y pensamiento* 3: 11-31.

- KERNBERG, O., Bernstein, C. S., Coyne, R., Aorelbaum, D. A., Horwith, H. Y. eta Voth, T. J. (1972), «Psychotherapy and Psychoanalysis: Final Report of the Menninger Foundation's Psychotherapy Research Project». *Bulletin of the Menninger Clinic* 36 (3): 1-276.
- LACAN, J. (1966), «El estadio del espejo como formador de la función del yo [je] tal como se nos revela en la experiencia psicoanalítica». In L. Jacques (arg.) *Escritos 1*, México: Siglo XXI (1984), 86-93 or.
- LACAN, J. (19679-70), «Libro 17. El reverso del psicoanálisis.1969-70». In J.-A. Miller (arg.) *El seminario de Jacques Lacan*. Buenos Aires: Paidós (Gaztelaniaz 1992).
- LACAN, J. (1971), «Del sujeto por fin cuestionado». In L. Jacques (arg.) *Escritos*, Madril: Siglo XXI (1966), 219-226 or.
- LACAN, J. (1971), «Subversión del sujeto y dialéctica del deseo en el inconsciente freudiano». In L. Jacques (arg.) *Escritos*, Madril: Siglo XXI (1966ko originala), 773-807 or.
- LACAN, J. (1984), «Función y campo de la palabra y del lenguaje». In L. Jacques (arg.) *Escritos 1*, México: Siglo XXI, 227-310 or.
- LACAN, J. (1989), «Libro 11. Los cuatro conceptos fundamentales del psicoanálisis. 1964». In J.-A. Miller (arg.) *El Seminario de Jacques Lacan*, Bartzelona: Paidós (1973ko originala).
- LACAN, J. (2006), «Libro 10. La angustia». In J.-A. Miller (arg.) *El seminario de Jaques Lacan*, Bartzelona: Paidós (1962-63ko originala).
- POPPER, K. (1963), *Conjeturas y refutaciones*. Buenos Aires: Paidós, 2001.
- PORGE, E. (1996), «Sujeto». In P. Kaufmann (arg.) *Elementos para una enciclopedia del psicoanálisis*, Bartzelona: Paidós, 472-479 or.
- SOLMS, M. (2004), «Vuelve Freud». *Investigación y ciencia, julio 2004*: 50-56.